

Isittasun burrumbatsua



Gazte
HITZAK 2015

Leyre Hernandez Palacios



HITZAURREA



IPUIN ETA KONTAKIZUN LABURREN LEHIAKETA

14 URTEtik 25era BITARTEKO GAZTEENTZAT

Duela milaka urte esku batek markak egin zituen buztinean, eta Gilgameshen atsekabea adierazi zuen. Duela hainbat mende, Bernart Etxeparek euskarari kantatu zion tintarekin paperean idatziz. Iaz, Gasteizko gazte batzuk ordenagailuaren aurrean eseri eta ipuinak idatzi zituzten. Funtsean, zirkunstantziak eta garaiak gorabehera, fenomeno bera: espiritua hegan ezintasun guztien gainetik.

Zalantza handiak izan ditut ipuin onenak aukeratzeko unean, batez ere “Lehen (eta azken) kronika” eta “Isiltasun burrunbatsua” izenekoen artean. Oso testu onak, biak ere. Azkenean, bai kasu honetan bai gainerakoetan, erabaki egin behar, eta... zein gogorra den erabaki beharra!

Bernardo Atxaga

Isittasun burrumbatsua

Argitaratzailea: Vitoria-Gasteizko Udala. 2016 urtea
Diseinua eta maketazioa: Sinbait creaciones
Inprenta: Gráficas Ulzama



Leyre Hernandez Palacios, 17 urte

Lara kaletik dabil, eskolako motxila sorbaldetan eta hodeiak buruan. Egun zoragarria egiten du. Ez, ez da eguzkia ikusten, eta eguraldia hozten hasia da. Goizean txamarra lodiagoa hartu ez izana damu du. Hala ere, egun zoragarria da.


Halako batean, beti bezala bere inguruan gertatzen denari erreparatu gabe dabilela, metal barra batek bere bularra kolpatzen duela sentitzen du eta arnasa galarazten dio. Ez da metal barra bat, beso bat baizik; bere aurrerabidea geldiarazi eta ziurrenik bizitza salbatu diona. Izan ere, kalea zeharkatzea zihon momentu berberean kotxe bat pasatu da ziztu bizian bere aurretik.

Bihotza bizkor-bizkor taupaka hasi zaio bularrean, atzeratuta dabilen adrenalinarean eraginez. Besoak bularraren gainean gurutzatu ditu indarra eginez, mugimendu horrekin bihotza kutxa torazikotik ateratzea saihestuko balu bezala. Begiak indarrez itxi ditu kanpoko mundua ahaztu nahi izango balu bezala. Belarrietan txistu altu bat besterik ez du entzuten. Eta badirudi bere birikek arnasteko modua ahaztu dutela.

Nahastearen erdian bere aitaren aurpegia gogoratu du, bere belarrira hitz xamurrak xuxurlatzen dizkiola. Baina ez ditu hitzak ondo entzuten. Bere belarrietara airerik gabeko espazio batean baleude heltzen dira. Aita berarengana hurbildu nahi du, eta modu instintiboan bere eskumutur eskuina belarrira hurbiltzen du. Han aitak oparitutako erloju zuria darma, erlojuaren orratzak eskumuturraren barnealdean daudela beti. Horrela errazagoa egiten zaio eskua belarrirantz hurbiltzea orratzen mugimendu periodiko eta lasaigarria entzuteko inor konturatu gabe.

Tentsio handieneko momentuetan bakarrik hala lortzen du Larak bere bihotzaren taupada frenetikoak moteltzea. Lo gelditu nahi denean eskumutur barnealdea belarrira itsasten du, bere orratzek beharrezkoa duen lo-kanta joko balute bezala. Batzuetan klasean, zarata handia dagoenean ere bere erlojuaren erritmo geldieztina behar du zuhurtasuna berreskuratu nahi badu. Eta halako egoerak hamaika aldiz errepikatu ohi dira egunero Lararen bizitzan. Horregatik bere erlojuordezkaezina da berarentzat. Jada ohituta dago bere kadentzia propiora, eta ez dago beste erlojurik beraregan efektu lasaigarri hura sor dezakeena.

Azkenik belarrietako txistua desagertu da, entzuten duen bakarra erlojuaren orratzen mugimendua dela. Bere arnasketarenean eritmikoki gauzatzen ahalegindu da berriro, eta arnasketak sakonak egitea lortu du. Orduan begi bat ireki du eta bere alboan norbait duela konturatu da. Bere aurpegia ezaguna iruditzen zaio, baina ez daki zergatik. Beste begia irekitzera ausartu da eta mutilaren begirada bere indar guztiz nabaritu du. Bere masailak berotzen sentitu ditu eta handik ahalik eta lasterren ateratzeko nahiak bultzatuta bat-batean zutitu egin da, guztiz gorrituta.



Mutikoa ez da zutitu eta ez du inolako espresiorik aurpegian. Lararen eskumuturra sinalatu du, oraindik belarri ezkerreara guztiz itsatsita duena. Momentuaren tentsioa pasatu delarik bere aingura momentu batez askatu dezakeela sentitzen du eta azkenik bere eskumuturra jaitsi du. Ikustean Lara behingoz baretuta, mutikoak buruarekin baiezkoa eman eta hortik urrundu zen, bere bideari ekinez.

•••

Etexera heltzean bere ama sukaldean aurkitzen du, beti bezala, afaria prestatzen, nahiz eta oraindik arratsaldeko laurak diren. Bere ezpainak honako hau ahoskatzen dutela ikusi du: “Kaixo, Andy, nolako izan da zure eguna?”. Izan ere, kaskoak jantzita, musikak inguruko soinu guztiak itotzen ditu. Hurbildu zaio eta masailean muxu bat ematen utzi dio. Ez dio galderari erantzungo, eta bere amak badaki hori galdetu aurretik. Baina ohitura horri eusten dio, manera onek benetan garrantzia balute bezala, edukiak faltan izanagatik. Berari ez zaio inporta benetako erantzuna eskatzen ez dioten bitartean.

Bere logelara igo da eta han eroso jarri da: kaleko kaskoak beste kasko handiago batzuen ordeztatu ditu. Ordenagailua pizten den bitartean ohean etzanda gelditu da, begiak itxita. Baina beste egunetan ez bezala, gaur bere burua ez dago hutsik, bakarrik musikak zeharkatua. Neskaren jazoera behin eta berriz burura datorkio. Begiak irekitzen ditu eta ordenagailuaren aulkira pasatzen da. Bere bideo-joko gus-tukoena hasten du eta daramatzan kaskoak ordenagailura

konektatzen ditu, mundu birtualean murgiltzeko prest. Eta horrek bai, neska ahaztaratzen dio.

Biharamunean berriro kaskoak jantzita ateratzen da etxetik, eskolaranzko bidean. Inguruko soinuak baztertzen ditu, baina ez irudiak. Ikusten duenari adi-adi dago Andy, eta besteak nabaritzen ez dituzten detaileak ere hautematen ditu. Horregatik, nahiz eta bere pauso bizkorrak ez entzun, ez da izutzen aurreko eguneko neska bere alboan bat-batean ibiltzen hasten denean.

—Egun on —ikusten du bere ahoa ahoskatzen, eta aldi berean neskaren masailak gorritzen dira.

Berak buruarekin baiezkoa egiten du eta berdina erantzuten dio. Abesti batzuk ibiltzen dira isiltasunean, gutxienez Lararen ikuspegitik. Orduan ausartzen da esatera:

—Eskerrik asko atzokoarengatik. Atzo ezin izan nizun eskertu —esaten dio guztiz lotsaturik.

—Ez zen ezer izan. Edonork berdina egin izango luke.

Momentu horretan eskolako atean zeharkatu zituzten eta ikasle-multzoaren artean galdu zen, Lara atean bakarrik utziz.

•••

Berriro bere logelan ordenagailua piztu den arte itxaron du eta eskolako motxila betiko izkinan ahaztuta, berriz mundu birtualean murgiltzeko asmoa du. Jada bere “avatar”ra kontrolatzen dabilela, neskaren aurpegia agertu da bere pentsa-

menduen artean. Buruaren mugimendu batekin izutu du eta bere arreta mundu birtualak proposatzen dizkion erronketan jarri du berriro. Baina handik minutu batzuetara bere burua neskaren masail gorrietan pentsatzen aurkitu du. Nola liteke? Bideo-jokoa deskonektatu eta ordenagailua itzali du. Kaskoak musika-erreproduzitzailera konektatu eta eskaile-rak jaitsi ditu.

Han, sukaldean, bere ama dago, beti bezala, afaria prestatzen. Bera han ikusteak harritzen badu, ez du erakusten, eta irribarre batekin agurtzen dio. Andy sukaldeko aulki batean esertzen da, bere amak egiten duena behatzen. Hori egiten duenean normalean beste pentsamendu guztiak aldentzea lortzen du. Bere arreta bere amaren mugimenduetan jartzen du.

Horrek Andyren burua benetan lanpetuta mantendu ohi du, baina ez gaur. Gaur bere ama sukaldatzen ikusten duen bitartean bere buruak neska horri buruzko galderak egiten dizkio. “Zer egongo da orain egiten? Etxean egongo da jada, edo arratsaldeko aktibitatearen bat egongo da egiten.” Ez daki ezer beraren inguruan eta oraindik ere bere burua moldatu da berari bere pentsamendu gehienak eskaintzeko.

•••

Biharamunean eskolarako bidean bere ingurunea behatzen ibiltzen da Andy. Baina beste egunetan ez bezala zerbait konkretua bilatzen dabil bere begiekin.

Lara eskolako atean dago, itxaroten, bizitza salbatu zion mutikoari itxaroten, atzo ihes egin zion mutikoari itxaroten. Gaur ez du lortuko, ez. Erabakita du. Ikusten duen momen-

tuan geldituko du eta bere izena galdetuko dio. Ezin da gelditu mutil horren izena jakin gabe. Orduan, bere albotik pasatzen diren ikasleak behatzen dabilela, norbaiten eskua bere sorbaldan nabaritzen du. Lekuan salto egiten du eta burua biratzen du nor den ikusteko. Bere sorpresarako atzo ihes egin zion mutikoa da. Bere masailak gorritzen sentitzen ditu eta irribarre egiten saiatzen da.

—Nola duzu izena? —galdetzen dio mutikoak berak ezer ahoskatu aurretik.

—Lara —erantzuten du lotsati—. Eta zuk?

—Andy deitzen naiz.

Momentu batez biok mutu geratzen dira. Elkarrizketa nola jarraitu jakin ezinik. Orduan klasera sartu behar diren berri ematen duen adarrak jotzen du eta bere baitatik ateratzen ditu. Azkar batean honakoa esaten dio Andyk Larari:

—Gera gaitetz parkean arratsalde honetan. Bostetan ondo dirudizu?

—Ondo da—erantzuten dio Larak gehiegi pentsatu gabe.

Eta orduan, Andyk irribarre egiten ikusten du lehen aldiz. Eta bere irribarra ikasle mordoaren artean galtzen ikusten du, izar iheskor bat zeruertzean galtzen ikusten den bezala.

•••



Bostetan han dago Lara, parkean, banku batean itxaroten. Berehala han dago Andy, den-dena behatzen duten begi horiekin Lararen bila. Orduan, bigarren aldiz bere irribarrea ikusten du Larak, eta berriro bere masailak traizionatzen dio- te, bere urduritasuna erakutsiz.

—Kaixo, zer moduz? —galdetzen dio Andyk bere alboan eseriz.

—Ondo, eta zuk? —erantzuten dio Larak.

—Ondo ere bai.

Andyk bere eskuak poltsikoeran ditu. Ez baitaki non jarri ere. Larari antzeko zerbait gertatzen zaio. Eskuak iletik pasatzen ditu, jada belarri atzean dituen ile-xerloak aurpegitik kendu nahiko balitu bezala. Bere kaskoak seinalatzen ditu.

—Zergatik daramazu beti hori?

—Musika entzutea gustatzen zait. Bat nahi duzu? —galdetzen dio kasko bat eskainiz.

Larak ahalketasunez hartzen du eta belarrarian jartzen du. Baina berehala urruntzen du handik. Hain dago ozen jarrita ezen ez baitu zarata baino entzuten.

—Nola entzun dezakezu ezer horrekin?

—Ez dut entzuten.

Lara harrিতuta begiratzen dio.

—Eta nola dakizu zer esaten dizuten?

—Ezpainak irakurtzen dakit.

—Ez dut ulertzen —aitortzen dio Larak—. Zergatik egin diozu uko entzumenari?

Andyk ez du berehala erantzuten.

—Beldurra diot isiltasunari.

Larak ez du ezer esaten. Baina jarraitzeko eskatzen dio begiradarekin.

—Musikak pentsamenduak itotzen laguntzen dit. Isiltasunak burua garbi uzten dit pentsamenduentzat, zirrarentzat. Horrek nahasten nau. Musikak, berriz, edo zaratak nire arreta ardazten laguntzen naute. Hiri hau oso isila da. Musika gabe buruak eztanda egingo lidakeela uzte dut.

—Isiltasun burrunbatsua —dio Larak.

—Hori da.

Momentu batez biok entzuten geratzen dira. Andyk bere musika entzuten, burua zeharkatzea ahalbidetzen duen bakarra. Eta Larak parkeko eta hiriko soinuak hautematen. Egia da Andyk dioena, oso hiri isila da. Isiltasunak burua garbi uzten du pentsatzeko, sentitzeko.

—Ez dakit zer egingo nuke isiltasunik gabe —dio Larak—. Zaratak itotzen nau. Isiltasuna nire oasia da, nire leku zoriontsua —esaten dio malkoak begietan dituela, jausteko prest, irribarez dagoen arren—. Ni errealitatera lotzea lortzen duen bakarra erloju hau da —dio bere eskumuturra altxatuz eta erlojuari begiratuz—. Nire aitak oparitu zidan, lehen izuikarra erasoaldia izan ostean. 4 urte nituen, eta ozta-ozta gogoratzen dut. Baina esan zidan ez nuela beldurrik izan behar.

Mundua nire oin azpian dagoela, eta bakarrik aurkitu behar dudala. Erlojuaren zarata ezinbestekotasuna irudikatzen du niretzat. Gertatzen dena gertatzen delarik, denborak bere iragatea jarraituko duela, zerbait aldaezina, mugiezina.

Andyren begiak bere aurpegian nabaritzen ditu, inoiz nabaritu ez duen indarrez. Orduan konturatu da inoiz ez diola bere burua modu honetan inori ireki. Eta pisu handi bat bere gainetik kendu izan balu bezala sentitu du. Lotsa handia sentitu du ere, ez baitaki Andyk ulertuko duen ala ez. Baina berehala sentitzen du bere begiradaren berotasuna.

Beharbada hori da biok behar dutena, norbaitekin partekatu torturatzen dituen. Hala, beharbada, gaindi ditzakete beraien arazoak. Beharbada, batak bestearengatik ikas dezakete eta erdiko puntu batera iritsi.

Beharbada, isiltasun burrunbatsua entzuteari utz diezaiokete.



